

Ikastetxearen, irakaslearen eta familiaren papera haurraren kalitatezko heziketan

Autor: Ezenarro Aranburu, Ander (Maestro. Especialidad Educación Física).

Público: Lehen Hezkuntza. **Materia:** Hezkuntza komunitatea. **Idioma:** Euskera.

Título: Ikastetxearen, irakaslearen eta familiaren papera haurraren kalitatezko heziketan.

Resumen

Artikulu honek ikasleen hezkuntzako erakundeen esku-hartzearen garrantzia erakusten du, ikasleak gizartean txertatzeko garaian garapen integrala lortzeko. Garrantzitsua da erakunde desberdinen arteko etengabeko komunikazioa egotea eta baita kalitatezko eskola bat bermatzeko helburu komunak finkatzea ere. Ikasleen etxean ikasteko prozesu egokia jarraitzeko zenbait jarraibide ere azpimarratzen dira. Artikulua guztion motibazioaren garrantziari buruzko hausnarketa txiki batekin amaitzen da eta parabola bat egiten du gure ikasleek bikainak izan ahal izateko beharrezkoak diren ekintzekin heziketa etapa amaierarako.

Palabras clave: kalitatezko heziketa, bi noranzko komunikazioa, hezkuntza komunitatea, familiaren papera.

Title: School, teacher and family role in child quality education.

Abstract

This article shows the importance of the participation of student education institutions in order to achieve a comprehensive development in the social inclusion of students. It is important to have a constant communication between different organizations and to establish common goals to guarantee a quality school. There are also guidelines to follow in order to follow the process of learning a good student at home. The article ends with a small reflection on the importance of the motivation of all and makes a parable for the end of the stage of education for our students to be excellent.

Keywords: quality education, two way communication, educational community, family role.

Recibido 2019-02-01; Aceptado 2019-02-12; Publicado 2019-03-25; Código PD: 105023

Eskolaren funtzio garrantzitsuenetarikoa bat ikasleei beraien testuinguruko kulturaren transmisioa bermatzea da eta horren ondorioz, sozializatzea. Eskolak haurrak aktiboak, kritikoak, eta sortzaileak izaten laguntzen du beraien garapen integrala bultzatuz. Irakasleek paper garrantzitsu bat betetzen dute alor honetan, baina konturatu behar gara badaudela irakasleak bezain garrantzitsuak diren beste organo batzuek ere bai, alegia, gurasoak.

Oso garrantzitsua da irakasle eta gurasoen arteko elkarrekintzak. Horretarako beharrezkoa da beraien artean komunikazio garbia egotea, bi noranzko komunikazioa, bai irakasleak gurasoenganakoa eta baita gurasoak irakasleenganakoa ere. Bi entitateen arteko harremana sendotzea lortuz gero, norantza berdineko hezkuntza lortu ahal izango da. Horrela, haurra, etxean eta ikastetxean izango dituen betebeharrekin trebatuta egongo da eta bietan egingo dituen jarduerak ezagunak egingo zaizkionez, askoz ere emaitza hobekak lortu ahal izango ditu. Halaber, hainbat ikerketa diotenez, bi organoen arteko kooperazioak eta elkarlanak, haurrengan emaitza onak izatera daramatza. Bai garapen sozialean, kognitiboan, afektiboan eta fisikoan ere.

Orain esandakoarekin lotuz, Brofrenbrenner-en iritziz, familiak eskolako jardueretan parte hartzen duenean eta horren alde apustu egiten duenean, haurrak etekin gehiago ateratzen dio eskolako ekintzei, emaitza hobekak lortuz. Hauek, kalitatezko heziketa bermatzeko ekintzak dira eta berauei esker, haurraren autoestima hobetzen da ikaste prozesuan emaitza hobekak lortuz eta ondorioz, ikasleak motibatuagoak egongo dira.

Bestalde, lehenago esan dudana bezala, eskolak funtzio sozializatzailea du eta gurasoen eta irakasleen papera ez da soilik beraien arteko informazio trukaketan zentratzen. Haurren garapena bermatzeko, ikastetxea ongi egituratuta (ikastetxe organoak) eta planifikatuta (IHP, IUP, AJA...) egon behar da eta helburu eta nortasun propio batzuk finkatuta eduki behar ditu. Horretarako ikastetxearen hezkuntza komunitatea inplikatu behar da eta hemen ere gurasoek zeregin garrantzitsuak dute.

Komunitate guztiaren inplikazioa ahalbidetzeko eskola hainbat organoz dago eratuta eta horietako bat eskola kontseilua da, non ikastetxeko organorik gorenena den. Bertan aipatutako ikastetxeko helburuak, nortasuna, arauak, jarduerak... adosten dira. Eskola kontseiluan komunitateko hainbat ordezkari aurkitzen dira, irakasleak, zuzendaria,

gurasoak eta udaletxeko ordezkaria batik bat eta hauen guztien parte hartzea eta batez ere inplikazioa bere biziko garrantzia du ikaslea era egokian integratu ahal izateko.

Oso garrantzitsua da hezkuntza komunitateko partaide guztiak inplikatzeko ikastetxearen nondik-norakoak adosteko eta are gehiago guztion interesetan oinarritutako eskola sortzeko. Horrela, hezkuntzarekin zerikusia duten erabaki-hartze guztiak askoz errazagoak izango dira.

Gizatalde sendo eta harreman estuko komunitate bat sortuz gero, guztion artean martxan jarritako proiektuak arrakastatsuak izango diren emaitzak lortu ahal izango dira. Honekin zera esan nahi dut, garrantzia handia duela guztion interesetan oinarritzen diren proiektuak egitea finkatutako helburuak lortzea nahi badira.

Baina ikastetxe baten zeregina ez da horretan bakarrik gelditzen, bertan hartutako erabakiak, sortutako proiektuak, antolatutako ekintzak... kalitatezko hezkuntza bermatzeko hasieran aurreikusitako helburuak lortu diren edo ez baloratzea komeni da. Hau horrela izanik, kalitatezko sistema bat txertatzea komeni da non hasiera bateko plangintza martxan jarri ondoren, balorazio bat eginda beharrezkoak diren aldaketak egiten diren, horrela behar izanez gero, hezkuntza maila hobetzeko asmoz. Etengabeko ebaluaketa bat eginez egindako jarduera guztietan, etengabeko hobekuntza lortuko da haurren heziketa integrala lortuz.

Kalitatezko sistemaren harira, Shewhart-en PDCA delakoaren zikloa jarraitzea egokitzat jotzen dut: Planifikatzea (PLAN), Burutzea (DO), Egiaztatzea (CHECK) eta Doitzea (ACT). Hau da:

1. **Planifikatzea:** behin denon artean adostutako helburuak finkatuta daudela, hori lortzeko, eginbeharreko guztia ongi pentsatu behar da. Nola egin, zer egin, norekin egin, nortzuk...
2. **Burutzea:** dena planifikatuta dugula, plan hori martxan jartzea deritzo. Alegia, burutu behar dugun jarduera aurrera eramatea.
3. **Egiaztatzea:** planifikatutako dena burututa dagoenean, komeni da parte hartzaile guztien artean, eginikoaren balorazio bat egitea ateratako emaitzak aztertuz eta markatutako helburuekin parekatuz. Proiektuko helburuak bete diren kontrolatuko ditugu.
4. **Doitzea:** ateratako emaitzen ondoren, mantendu behar dena eta, batez ere, hobetu behar dena erabakitzea. Hau da, eginiko guztia kontutan hartu eta baloratu ondoren, zuzendu beharrekoa zehaztu eta konpondu egin behar dira hurrengo proiektuetan akats berberak berriz eman ez daitezen

Ikusten den bezala eskolaren funtzioak bete ahal izateko, hau da, haurren sozializazioa eta bere garapen integrala bermatzeko ez da oinarritu behar bakarrik irakasle eta ikaslearen arteko elkarrekintzan. Aurretik lan handia egin da eta aurretik egin behar den lan hori oso garrantzitsua da eskolaren funtzioa betetzeko.

Gai honetan ikusi dugunez, familiaren papera pentsatzen den baino askoz garrantzi handiagoa du eta bere inplikazioa ezinbestekoa da. Baina, bizitza honetan gauza guztiekin bezala, proiektu baten inguruan inplikazioa gerta dadin zerbaitek mugiarazi behar gaitu, zerbait hori motibazioa da. Motibaziorik gabe ez dugu astirik, ezta gogorik ezertarako ere. Horregatik, gurasoak ikastetxeetan inplikatzeko nahi bada, beharrezkoa da jakinaraztea gurasoei, baita irakasleei ere, denon arteko kooperazioak gizarterako onura handia ekartzen duela. Kontzienteagoak izango dira ikastetxearen benetako helburuak zeintzuk diren, pertsona integralak hezteak duen garrantziaz jabetuko dira eta une batez irakaslearen paperean jarriko dira, besteak beste. Aldi berean, onura hauek guztiak ezagutzeko, konturatuko dira beraien inplikazioa garrantzitsua dela eta ezinbestekoa den motibazioa izaten lagunduko die.

Gurasoak eskolako proiektuetan laguntzeaz aparte, etxean bertan ere inplikatu behar dira markatutako helburuak lortu ahal izateko. Hau da, irakaslearen heziketa aurrera eramatea nahi bada. Horretarako, behar-beharrezkoak dira norbere etxean ikasteko eta lan egiteko ohiturak sustatzea. Hau dela eta oso garrantzitsua da alde batetik ikasteko giro egokia izatea etxean bertan. Bestetik, haurrei etxeko lanak aurrera eramaten laguntzea eta eskolan egiten dituen aurrerapenei jarraipena egitea. Ondoren, haurren etxean izan beharrekoko ohitura gomendagarri batzuk aipatuko ditut:

- Egunerokotasunean etxeko ohiturak sortzea eta mantentzea beharrezkoa da haurrak eguneroko bizitzan aurreikuspen bat izan dezan. Horrek konfiantza puntu bat ematen dio ziurgabetasunetik aldentuz. Egokia da etxeko eginkizunetan ordutegi bat finkatzea eta errespetatzea: dutxatzeko ordua, afalordua, eskolako lanak, jolasteko ordua...

- Haurraren eskolaz kanpoko ekintzak ongi aukeratu behar dira. Gurasoek haurraren denbora libre modu eraikitzaile batean kudeatzen lagundu behar dute eta baita ikaste esperientziaz disfrutatzen ere. Oso egokiak izaten dira batik bat kirolarekin eta kultura arloarekin zerikusia duten ekintzetan parte hartzea.
- Ikasketa prozesuaren inguruko jarrera baikorra aurkeztu behar dute gurasoek. Ikasleek ikusi behar dute gogor lan eginagatik emaitza onak dakartzatela eta eginiko esfortzuak merezi duela. Giro horretan bizi diren ikasleak, normalean, eskolako jardueretan hobeto moldatzen dira. Horren aurrean gurasoak ereduak izan behar dira eta hurrei jakinarazi behar zaie, eredu izanez, bizitzan eginiko esfortzu guztiak azkenean sariak ekartzen dutela. Egokiak izaten dira eskolako helburuak lortzen lagunduko duten jarduerak planteatzea. Adibide gisa, norbere gaitasunak garatuko duten jolasetara jolasten.
- Haurraren lorpenen inguruko itxaropenak altuak izatea eta horrela jakinaraztea umeari. Itxaropenak altuak izan behar dira baina baita errealistak ere. Hau da, haurraren gaitasunetatik hurbil egon behar dira, kontutan hartu behar dira dituen abileziak eta heldutasun maila. Horretarako haurrari lan egitera animatu behar zaio eta lortutako lorpenak zoriondu.
- Etxeko lanak aurrera eramateko jarrera egokiak hartu behar dira. Ikaslearen beharrak asetu egin behar dira. Laguntza behar dutenean gurasoak prest egon behar dira laguntzeko eta beraien ondoan egon. Ikaste karpeta eta etxeko lanak dituen galdetu eta horrela bada, egunean bertan egitera gonbidatu. Beti ere errefortzu positiboak emanez eta ez behartzen. Eskolaren edo-eta irakaslearen inguruan hitz egiterakoan modu eraikitzailean egin, jarrera baikorra azalduz. Irakaslearekin komunikazio zuzena izan telefonoz, aurrez-aurre, e-mailez... umearen inguruko sentazioak partekatuz eta bien arteko itxaropenak partekatuz

Amaitzen joateko, ondorio gisa eta laburbilduz, kontutan hartu behar da eskolak haurrak “ekoizten” dituen enpresa bat dela eta industriagintzako “puntako” enpresak estrukturaliki ongi antolatuta, egituratuta eta planifikatuta badaude eta kalitatea bermatzen duen sistema bat erabiltzen badute, zergatik ez da sistema berdina edo antzekoa erabili behar hezkuntza mailan? Ez dugu zertan sistema berririk asmatu behar. Inguruan ditugun ereduak kontutan hartu behar dira eta horiek onak badira eta erabilgarriak badira kalitatezko hezkuntza sistema bat bermatzeko, kopia dezagun baliogarria zaiguna eta beharrezkoa dena moldatu.

Bestetik, gaur egungo enpresak bezeroarekin egunero daude kontaktuan. Edozein zalantza izanez gero, bien aldetik, momentu oro daude elkarrekintzetan e-mailez, telefonoz, bilerak eginez, bideo-konferentziak... argi geratzen da, industriagintzan bezeroarekin etengabeko kontaktuan egoteak bere emaitza onak dakartzatela, beraz, zergatik ez da egon behar ikastetxea bere bezeroarekin (famieliarekin) kontaktuan une oro? Azken finean denok helburu berdina dugu, gure “*produktua*” hoberena izatea.

Bibliografía

- Eusko Jaurlaritz (1997). Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua lantzeko gida. Haur hezkuntza, Lehen hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzarako Orientabideak Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Alvarez M. (et al.) 2000: El Proyecto educativo de la institución escolar. Barcelona Ed. Graó
- Antúnez S., Gairín J. (1996): La organización escolar. Practica y fundamentos. Barcelona. Ed. Graó
- Cantón, I (2004). La organización escolar normativa y aplicada. Madrid.biblioteca Nueva
- Ceballos, E eta Rodrigo, M. J. (2001). Seme-alabak gizarteratzean gurasoek dituzten helburuak eta estrategiak. In M. J. Rodrigo eta J. Palacios (koord.), familia eta giza garapena (225-243 orr). Bilbo: Udako Euskal Unibertsitate
- Eusko jaurlaritz (1995). Hezkuntzaren kalitatea. Vitoria-Gasteiz.
- Martinez, A. eta Galindez, E. (2003) familia y entorno. Implicación de la familia en la organización escolar.